

Landei

Aldizkari Sindikala - Revista Sindical
Martxoa · Apirila 2025 Marzo · Abril | Nº 257 Zenb.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Langileria antolatu gizartea eraldatu

Mitxel Lakuntza y Amaia Muñoa analizan las claves del XVI Congreso Confederal que ELA celebrará el 2 y 3 de junio en Bilbao bajo el lema 'Langileria antolatu, gizartea eraldatu. Más sindicato, más vida'



“Langileria antolatu nahi dugu gizartea eraldatzeko”

> **Xabier Irastorza**

ELAk bere XVI. Kongresu Konfederala egingo du 2025eko ekainaren 2an eta 3an Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, besteak beste, Ponentzia eztabaidatu eta bozkatuko da, hau da, hurrengo lau urtetarako sindikatuaren helburuak eta ildo estrategikoak laburbiltzen dituen programa. Mitxel Lakuntzak eta Amaia Muñozak, idazkari nagusia eta idazkari nagusiaren albokoa, hurrenez hurren, ponentziaren nondik norakoaren inguruan mintzo dira elkarrizketa honetan ▶

Datozen lau urtetarako lan ildo nagusiak definitzea du helburu kongresuak, baina zein testuingurutan kokatu behar da kongresuko hausnarketa bera eta hurrengo urteak?

[Mitxel Lakuntza]: Testuinguru konplexu eta zaila dugu eta azken hilabeteetako gertakariak ikusita are zailagoa izango dugula dirudi.

Mundu mailan lehia eta tentsioa agerikoak dira. AEBek bere hegemonia mantendu nahi dute, baina Txina eta BRICS herrialdeak gero eta indartsuagoak dira. Kongon, Gazan edo Ukrainan gertatzen dena lehia horren adierazle da. Lehengaien eta energia iturrien gaineko lehia mundu osoan egitura eta borroka neokolonialak bultzatzen ari da, kasu askotan gerrara pizteraino. Gerren ugaritzea horren adierazle da.

Pandemia ondoren Europar Batasunak Estatuaren gastu eta zorpetze muga malgutu zuen, baina jada inposatu dute berriro ‘diziplina fiskala’, eta horrekin batera zerbitzu publiko eta politika sozialak mugatu edo murrizteko erabakia. Are okerrago esango nuke, Ukrainako gerraren aitzakiarekin arma-industria eta inbertsio funtsak elikatzeke adostu diren 800.000 milioien ondorioz murrizketa gogorragoak inposatzen saiatuko dira.

Politika neoliberalak herritarren ongizatea higatu dute, desberdintasunak handitu eta pobrezia zabalduz. Aldi berean, kapitalismoaren esplotazio eta krisiei aurre egiten dieten mugimenduak indartu dira, hala nola, transfeminismoa, ekologismoa, edo antirrazismoa. Baina ezkerreko alternatiba sendoen faltan, egoera honek guztiak sortzen duen ziurgabetasunak eskuin muturraren diskurtsoa elikatzen du. Botere ekonomikoaren bultzadaz, sare sozial eta komunikabideen bidez, buloak eta albiste faltsuak zabalduz ari dira, krisiaren biktimak errudun bihurtu nahian. Mugimendu sindikalak ere, Euskal Herrian konfrontazio dinamika garrantzitsua garatu dugun arren, ez gara gai izaten ari egoera

hau iraultzeko. Testuinguru gogor honetan, gure ohiko borrokei eustez gain, sindikatuaren konpromisoa giza eskubideen eta demokraziaren defentsan irmoa da. Kapitalismoak ez du behar demokraziarik eta askotan traba ere egiten dio, baina sindikalismoak nekez iraun dezake funtsezko eskubideak errespetatu gabe eta demokraziarik gabe.

[Amaia Muñoa]: Euskal Herrian, hamarkadetan inposatutako politika neoliberalak lan eta bizi baldintzak okertu dituzte eta enpresen irabaziak handitu diren bitartean langileen soldatak eta erosahalmena murriztu dira. Pobrezia eta gizarte-bazterkeria gero eta zabalduago daude, eta emakumeek eta pertsona migratuek pairatzen dituzte ondorio larriak. Adibidez, emakumeen pobrezia tasa gizonena baino nabarmen handiagoa da, eta migratzaileen artean pobrezia tasa gainerako biztanleriarena baino bederatzi aldiz handiagoa.

| Eta testuinguru horretan zeintzuk dira proposatzen diren lan-ildo nagusiak?

[A. M.]: Duela lau urte lan berezia egin genuen ildo-estrategiko sendo batzuk identifikatu eta zehazteko: prekaritateari aurre egitea, militantzia landu eta sendotzea, lan-zentroak sindikalizatzea, genero ekitaterako antolakuntza eraldatzea eta lan-planifikatua egituratzea.

Lan handia eta helburu oso anbiziotsuak jarri genizkion gure buruari. Denbora honetan aurrera pausoak eman ditugu, ildo batzuetan besteetan baino gehiago, baina oraindik bide hori amaitu gabe gaude. Beraz, ildo-estrategiko berberei eustea proposatzen dugu falta zaizkigun pausoak ematen jarraitzeko.

[M. L.]: Prekaritateari aurre egiteko eta prekaritatea pairatzen duten langileentzat ELA erreferentziatzeko sindikatua izateko lan-zentro bakoitzeko diagnostiko zehatzak eta berariazko planak garatzea eta negoziazio kolektiboaren prozesuan prekaritatearen lanketa txertatzea eta ongi planifikatzea planteatzen



LANGILERIA ANTOLATU, GIZARTEA ERALDATU

Más sindicato, más vida

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2025-6-2/3
EUSKALDUNA JAUREGIA
16. KONGRESUA

dugu. Soldata baxuak edo soldata arrakala pairatzen dutenak, behin-behineko edo kontratu partzialak dituztenak, osasun arrisku handia dutenak gure ekintza sindikalaren erdian egotea nahi dugu. Emakumeak edota sexu disidenteak, pertsona migratuak edo gazteak dira, modu berezian, horrelako egoerak gehien pairatzen ari direnak, nahiz eta geroz eta egoera eta pertsona gehiagotara hedatzen errealitatea izan.

Antzeko ildotik, sindikalismo feminista eraikitzeko bidean, emakumeek pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko barrura eta kanpora begirako planak garatzea planteatzen dugu. Sindikatuko antolakuntza eta jardura genero ikuspegitik eraldatzen jarraitzeko premia dugu, genero begirada sindikatuaren egiteko guztietan txertatzeko, emakumeen parte-hartzeari eta ardura hartzeari leku ▶

egiteko. Aurreko urteetako dinamika orokortuz, negoziazio kolektiboa ere genero diskriminazioari aurre egiteko tresna gisa garatzen jarraitu nahi dugu genero diskriminazio diagnostikoak eta negoziazio kolektiboan txertatzeko plan bereziak eginez. Antirrazismoa ere gure jardura sindikalean txertatzen hasteko lehen pausoak ere planteatzen ditugu.

[A. M.]: Hau guztia lantzea, ordea, ezinezkoa da lan-zentroak antolatuta gabe. Lan-zentro bakoitzean langileak antolatu eta enpresaburuekin konfrontatzeko gaitasuna eta gogoia sustatzeko planifikazio oso bat abian jarri dugu eta hurrengo urteetan pauso esanguratsuak eman nahi ditugu. Hori egin ezean ezinezkoa dugu botere ekonomiko eta politikoekin konfrontatzea lan eta bizi-baldintzak hobetzea. Hori ordezkari eta afiliatuak kontzientziatu, motibatu, antolatu eta trebatuta soilik lortuko dugu. Horretan buru-belarri aritzea proposatzen dugu.

[M. L.]: Horretarako ere erronka handia daukagu datozen urteetan: ahalik eta neurri handienera ELAren ordezkari eta afiliatuak militante bihurtzen saiatzea. Izan ere, militantzia da gure eredu sindikalaren muina. ELAkoa izatea ez da soilik afiliazio kontua, sindikatuaren printzipio, balio eta asmoekin bat egin eta sindikatuari bere ekarpena egiten dion pertsona da, egiturako kide, ordezkari nahiz afiliatu gisa. Militantzia sustatzea benetako jakintza eta botere transferentzia da. Horretarako, maila guztietan parte-hartze esparruak sortu eta sendotu behar ditugu, bakoitzaren inguruko pertsonak ideologiko, tekniko eta organizazionalki trebatu, ardurak eman eta ahaldundu. Militantziaren ekintza-eremua zabaldu behar dugu: enpresa eremuan, noski, baina baita harago ere ELAren lan-esparru sozial eta politikoetara ere hedatuz.

[A. M.]: Eta hau guztia ezin da egin gure lana hobeto sistematizatu eta planifikatu gabe. Egia da sindikatu baten lana, hein handi batean, enpresen eta gobernuen erabakiek



baldintzatzen dutela, baina ezin gaitzek horretara mugatu. Gure estrategia eta ekimen propioak garatu behar ditugu gure helburuak lortzeko. Horretarako jarri genuen martxan azken kongresutik hona gure kudeaketa sistema propioa. Efizienteagoak izan nahi dugu gure helburuak lortzeko, lehentasunak ezarriz, gauza batzuei uko eginez. Jarduera militantea bizitzarekin bateragarri egin behar dugu. Aurrerapausoak eman ditugu, baina oraindik asko dugu egiteko.

| Aurreko kongresuan ELA euskal errepublika euskaldun, burujabe eta sozialerako aldebakarreko bidearen aldeko apustua egin zuen, baina independentismoa ez dago bere momenturik onenean, euskararen aurkako oldarraldia gogorra pairatzen ari gara eta sozialki ez nuke esango hobe gaudenik. Zer da hurrengo lau urtetarako proposatzen dena?

[M. L.]: Sindikatu izatea da abertzale izateko gure modua. Sinetsita gaude justizia soziala eta herritar xumeen ongizatea hobetuz eraikitzen dugula herria. Hau da, negoziazio kolektiboan, zerbitzu publikoetan, politika sozialetan, herritarren funtsezko beharrei erantzuteko alternatibak eraikitzen ditugun heinean, gehiengo soziala irabazten ari gara eta burujabetzarako.

Espainiar eta Frantziar Estatuaren menpe jarraitzeak gure autogobernua eta ongizatea higitzen du eta langile-klasearen askatasuna mugatu egiten du. Euskal Herrian badaude bestelako politika batzuk bultzatzeko gehiengo sindikal eta sozialak. Beraz esparru ezberdinetan burujabetza irabazi behar dugu langile-klasearen eskubideak eta gizarte-ongizatea hobetzeko. Horri erantzuten diote, esaterako, hitzarmenak Euskal Herrian erabakitzeo borroka eta garaipenak, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata ere hemen erabakitzearen aldeko Herri Ekimen Legegileak, sektore publikoko inbertsioak, langileak eta lan-baldintzak guk erabakitzeo aldarriak, zaintza sistema publiko bat garatzeko estrategiak edo administrazio euskalduntzeko planak. Burujabetza edo independentzia ez dira egunen batean norbaitek aukera eman digulako bozkatuko dugun zerbait, etengabe esparru desberdinetan eraikitzen, erabakitzen eta irabazten joan behar dugun zerbait baizik.

[A. M.]: Zentzu honetan, asko kezkatzen gaitu estatus berrirako prozesua elite politikoen eztabaida bihurtu izana. Hurrengo belaunaldiak baldintzatuko dituen erabaki bat ezin da horrela kudeatu. Kultura politiko elitista gainditu eta gizarte zibilaren parte-hartzea indartzea ezinbestekoa

da. ELArentzat funtsezko da lan-harremanen euskal esparrua, euskararen estatusa, nazio aitortza, Hego Euskal Herriko herrialdeen gutxieneko konfederazioa eta erabakitze eskubidea eztabaidan txertatzea, eta hau lortzeko, gizarte zibilaren parte-hartzea eta mobilizazio sozial indartsuak ezinbestekoak izango dira.

EAEan eta Nafarroan autogobernuaren higadura eta hustearen aurrean euskal erakundeak ematen ari diren erantzuna oso ahula izaten ari da. Eta mugimendu subiranista ez gara estrategia sendo eta eraginkor bat artikulatzeko gai izaten ari. Baina edozein zapalkuntza egoeratik askatzeko konfrontazioa ezinbestekoa da eta gure ustez Euskal Herriaren burujabetza prozesuan polarizazioa ezinbestekoa da.

Langileen eta kapitalaren arteko gatazkan egiten dugun bezala, nazio borrokan ere konfrontazioa beharrezkoa da, autogobernuaren murrizketei erantzuteko, gatazka politikoa agerian jartzeko eta gure alternatibak eraikitzeko.

Ipar Euskal Herrian ere, Manu Robles Arangiz Fundazioaren bidez abertzale eta aurrerakoientzat erreferentzia bihurtu den ekosistema baten parte gara. Alda mugimenduaren lanari esker abertzaletasunaren ohiko esparrutik haragoko herritar xumeak saretzen ari gara. Honi batzen zaio Bizi! justizia klimatikoaren eta burujabetza ezberdinen inguruan sortzen ari den dinamika. Bide hauei jarraipena eman eta hedatzea dagokigu. Euskal Herri osoko lurralde bokazioa duen sindikatua da ELA.

▮ Ponentzia kritikoa da ezkerreko indar politikoeekin. Zein ondorio ditu horrek sindikatuaren jardunean eta zer da ezkerreko alderdiei eskatzen zaiena?

[M. L.]: Euskal erakundeetan dauden ezkerreko indarrek Europako sozialdemokraziek azken hamarkadetan hartu duten moderazio politikoen ildo berari jarraitzen diote. Ez dira ari gure



herrian urteetan finkatutako oinarri ideologikoei eta programa neoliberaleri aurre egiten, ezta alternatiba instituzionalik planteatzen ere.

Nabaria da EAJk, UPNk, Geroa Baik, PSE-EEk eta PSNk gure herrian inposatu duten zerga politikan, zerbitzu publikoen murrizketan, pribatizazioetan eta patronalaren aldeko jarreretan duten erantzukizuna. Hau honela, alderdi horiekin *'herri akordioak'* edo *'akordio zabalak'* bilatu eta justifikatzeak, kasu batzuetan historikotzat jotzeraino, diagnostiko oker batetik abiatzea suposatzen du, ezkerreko pedagogiari mesede gutxi egiten dio eta epe ertain eta luzera eraldaketa sakona eragozten du.

Mugimendu sindikalarentzat funtsezkoa da ezkerreko alderdiek instituzioetan langile-klasearen aurkako politikari aurre egitea, agenda atzerakoia konfrontatzea eta programa alternatibo bat defendatzea. Erabaki hori irmoa balitz eta eragile bakoitzaren autonomia errespetatuko balitz, agenda sozial eta soberanista garatzeko artikulazio sindikal, sozial eta politikoa gaitasun handia izango luke Euskal Herriko egoera soziopolitikoaren eraldatzeko. Tamalez, ez da hori EH Bilduk hartu

duen bidea, baina egingo balu, gure ustez badago gaitasunik eta oinarri militante nahikorik gure herriko errealitate soziopolitikoaren transformatzeko.

▮ LABekin ere harremanak ez daude momenturik onenean...

[A. M.]: Tamalez, ELA eta LAB bide ezberdinetatik goaz. ELArentzat aukera eta hautu bakarra Euskal Herriko gehiengo sindikala izan da. Gehiengo hau, aritmetikaz harago, kontrabotereko eredu sindikalak eta lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparruaren defentsa eta eraikuntzak ezaugarritu dute. LABekin, ordea, desadostasun nabarmenak ditugu negoziazio kolektiboan, konfrontazio eta grebarako prestasunean eta borrokarako erremintetan. Honen ondorioz, konfrontazio eta greba gogorretan, sarritan LABek UGT eta CC.OO. izan ditu bidelagun, ELA eta bere estrategia eta aldarrikapenak isolatuz eta lan-baldintza kaskarragoak onartzen dituzten gehiengo alternatiboak osatuz.

Bestalde, LABek bere unibertso politikoarekin dituen loturak eragin zuzena du bere ekimen sindikalean. EH Bilduk EAJ, PSE-EE eta PSNrekin akordioak egitean, LABek ▶



mobilizazio eta grebak mugatu edo baztertu ditu. ELAren ustez, EH Bilduren egungo estrategiak dikotomia bat planteatzen dio LABi: nola eutsi kontrabotere estrategiari, mugimendu bereko alderdiak konfrontazioa alde batera utzi eta akordio zabalak bilatzen dituenear?

Eta azkenik, LABek bere azken kongresuan Osalan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura itzultzea erabaki zuen. Azken hamarkadetan ELA eta LABek parte-hartze instituzionaleko hainbat organo utzi ditugu haien eraginkortasun ezagatik eta patronalaren interesen menpe egoteagatik. Organoren egitura, funtzioak eta egiteko moduan ezertan aldatu ez diren arren, LABek itzultzea erabaki du, sindikatuen parte-hartze faltsua irudikatuz eta bertan hartzen diren erabakiei zilegitasun kutsua emanez. ELArentzat kontrabotereko sindikalismoa eta instituzio horietan parte hartzea bateraezinak dira eta erabaki horrek azken hogeitertean kontzertazio sozialaren aurka elkarrekin egindako lana bertan behera uztea dakar.

Zein mezu luzatuko nahiko zenieke ELAren kongresuan parte hartuko duten ordezkariak eta ELAren militantziari hurrengo lau urteei begira?

[M. L.]: Deskribatutako testuingurua gogorra da, eta erronkak handiak

dira. Hala ere, ELAren egitura sendoa, ordezkariak zabalak eta errealtate konplexuetan mugitzeko eta irabazteko gaitasuna du. Ponentzian proposatutako bidea eta

konpromisoak ez dira errazak, baina norabide argia erakusten dute.

Esandako konpromiso nagusiak gauzatzea lortzen badugu, Euskal Herriko langile klasearen erreferente izaten jarraituko dugu eta egoera okerrean daudentzat itxaropen bihurtuko gara. Bide hori ezinezkoa da bakarka edo talde txiki batekin, baina ponentzian jasotzen den moduan, militantzia zabaltzeko eta aktibatzeke gai bagara, eta lan-zentroetan antolakuntza indartzen badugu, errealtate gris honi kolorea emateko eta itxaropena pizteko gai izango gara.

Ez zait zeregin hoberik bururatzeko kezka sozialak dituenarentzat, errealtatea eraldatu nahi duenarentzat edo gure herria eraiki nahi duenarentzat. Bere burua abertzale sentitzen duen batentzat ez zait zeregin hoberik bururatzeko. ■

MÁS SINDICATO. MÁS VIDA

La crisis sistémica que ELA describía en el anterior Congreso, hace cuatro años, se ha agravado. La inercia del sistema capitalista ha agudizado la crisis ecológica, incrementado la acumulación de riqueza y la desigualdad social y está poniendo en entredicho la propia democracia. Expresión de ello es la pérdida de poder adquisitivo y empobrecimiento de las clases populares, el cuestionamiento de derechos básicos, las crisis migratorias y el crecimiento del racismo, el negacionismo climático, el desarrollo de la estrategia belicista o el auge de la extrema derecha y las soluciones autoritarias.

Tanto a nivel general como en nuestro contexto más próximo, nos encontramos en un escenario muy preocupante. El mundo en general y nuestra sociedad en particular, se enfrenta a múltiples amenazas que generan una gran incertidumbre y que ponen en entredicho el sostenimiento del sistema actual.

En este contexto, la ponencia aprobada por el Comité Nacional y que se debatirá y votará en el Congreso, pretende ser una herramienta para hablar, debatir y llegar a nuevos consensos con toda la militancia sobre temas que consideramos importantes. En definitiva, la ponencia pretende impulsar una reflexión colectiva. El futuro de nuestra organización y el destino de la clase trabajadora de Euskal Herria lo merecen.

“Queremos un reparto más justo de la riqueza”

| Los últimos cuatro años han sido muy intensos en cuanto a la negociación colectiva. ¿En qué quiere poner el foco el sindicato en los próximos años?

[M. L.]: Los últimos años hemos tenido el mayor nivel de huelga recogido nunca en los datos oficiales y, gracias a ello, los y las trabajadoras de Hego Euskal Herria tienen la mayor cobertura de los convenios laborales de las dos últimas décadas, con subidas salariales sobre el IPC, un incremento salarial aún mayor en los sectores feminizados y reducciones significativas de jornada.

Nuestra prioridad para los próximos años será mantener este pulso y mejorar las condiciones laborales y de vida de las y los trabajadores en situación de precariedad. Proponemos sistematizar este trabajo e introducir cláusulas para hacer frente a la precariedad en los convenios y desarrollar planes específicos en ámbitos como el sector público. Para lograr un reparto más justo de la riqueza queremos lograr subidas salariales por encima del IPC y reducciones de jornada, además de introducir cláusulas para evitar el incumplimiento unilateral de los convenios. Para ello será imprescindible la participación de las y los trabajadores, la organización y las movilizaciones y huelgas en cada centro de trabajo y sector.

[A. M.]: Además de los contenidos tradicionales de la negociación colectiva mencionados por Mitxel, queremos impulsar medidas para fomentar la transición ecosocial; para ello hemos elegido más de 100 de empresas. Asimismo, queremos impulsar el euskera y la euskaldunización de las personas trabajadoras, garantizar la salud



y seguridad laboral y recoger en los convenios los derechos de los colectivos discriminados (personas migradas, LGTBI+, diversidad funcional).

| Los datos económicos dicen que estamos creando riqueza, pero eso no se refleja en nuestras condiciones de vida. ¿Qué propone el ELA para cambiar esta situación?

[A. M.]: La clase trabajadora está creando más riqueza que nunca, año tras año las empresas aumentan sus beneficios, pero en el reparto de la riqueza las rentas del trabajo estamos perdiendo peso y las desigualdades y la pobreza se están extendiendo.

Por eso, además de luchar para lograr subidas salariales por encima del IPC en la negociación colectiva, proponemos un salario mínimo propio para Hego Euskal Herria de 1.795 euros, el 65% del PIB per cápita, con el objetivo de tener en cuenta también las ganancias empresariales y de capital en el reparto de la riqueza. Además de ser un ejercicio de soberanía, lograr este objetivo mejoraría notablemente la situación de quienes perciben los salarios más bajos. Y junto a ello, de forma inmediata, proponemos reducir la jornada semanal a 35 horas, con el objetivo de 30 horas semanales. Esta medida fomentaría

la redistribución del empleo, garantizaría la salud y el bienestar de las y los trabajadores y fomentaría un reparto más equitativo de las tareas de cuidados.

[M. L.]: Junto a eso, seguiremos apostando por un sistema fiscal más justo, para que paguen más los más ricos y los beneficios empresariales. Seguiremos trabajando y realizando propuestas concretas para la satisfacción de las necesidades sociales esenciales, el fortalecimiento de los servicios públicos y la consolidación de las políticas sociales. Y lucharemos por echar atrás la reforma laboral y de pensiones.

Y también tenemos nuevos retos. Tenemos propuestas concretas para dar pasos significativos en la transición ecosocial ante la crisis ecológica. Garantizando la justicia social y los empleos, es imprescindible reducir la dependencia de energías y recursos fósiles mediante la relocalización de la producción y el consumo y el fomento de alternativas de bajo impacto ambiental.

[A. M.]: Queremos que en los próximos años el derecho a la vivienda, los derechos de las personas migradas y la sociedad feminista sigan siendo el eje. La vivienda no puede depender de la especulación, y exigiremos a los gobiernos medidas concretas. Asimismo, es fundamental garantizar un sistema de cuidados público, gratuito y de calidad y promover un reparto equitativo de responsabilidades. Queremos derogar la Ley de Extranjería, regularizar a todas las personas y trabajar para eliminar las discriminaciones en el mundo laboral. ■



Aurrean, ezker-eskuin: Alazne Mantxola Mintegi, Leire Txakartegi Iramategi, Pello Igeregi Santamaría, Ane Bilbao Alzelai. Atzean, ezker-eskuin: Iván Giménez Gil, Ane Miren Zelaia Arieta-Araunabeña, Mitxel Lakuntza Vicario, Unai Oñederra Egaña, Amaia Muñoa Capron-Manieux, Aitor Murgia Esteve, Leire Gallego López de Goikoetxea, Luis Fernández Centeno.

Principios renovados para seguir luchando

ELA aprovechará su 16º Congreso confederal para renovar los principios fijados en 1976

ELA celebrará su 16º Congreso confederal los días 2 y 3 de junio en el Palacio Euskalduna de Bilbao bajo el lema *Langileria antolatu, gizartea eraldatu* ('Organizar a la clase trabajadora, transformar la sociedad'). Como indica el propio lema, el objetivo es organizar a la clase trabajadora como agente activo y transformador para conseguir una sociedad más justa. De hecho *Más sindicato, más vida* es la segunda parte del lema elegido por ELA para esta cita cuatrienal. Además, el sindicato aprovechará la ocasión para actualizar los principios aprobados en el III Congreso de 1976, que tuvo lugar en Eibar.

Con arreglo a los Estatutos del sindicato, las 736 delegadas y delegados de ELA debatirán el informe de gestión presentado por el Comité Ejecutivo y la ponencia que definirá las líneas maestras para el trabajo sindical de los próximos cuatro años.

De las 736 delegados y delegadas 344 serán hombres y 392 mujeres (el 53,2%). Esto evidencia la apuesta de ELA por la igualdad de género. En el congreso de 2008 la participación femenina fue del 30,3%; en 2013, del 33,4%; en 2017, del 42,8%, y en 2021, del 47,2%.

Tres nuevas personas en el Comité Ejecutivo

El Congreso también servirá para elegir a las personas que compondrán los próximos cuatro años el Comité Ejecutivo. El Comité Nacional ha propuesto ya la lista de personas y funciones que se votará en el Congreso. Se propone la entrada de tres nuevas personas en el Comité Ejecutivo:

- **Ane Bilbao Alzelai** (Gasteiz, 1993). Afiliada desde 2017, empezó su trayectoria en los servicios jurídicos de ELA y ha sido responsable de Educación.

PROPUESTA DEL NUEVO COMITÉ EJECUTIVO

- **Mitzel Lakuntza Vicario (Iruña, 1976):** Idazkari Nagusia. *Secretario General.*
- **Amaia Muñoa Capron-Manieux (Aix-En-Provence, 1974):** Idazkari Nagusiaren Albokoa. Nazioartea. *Secretaria General Adjunta. Internacional.*
- **Ane Bilbao Alzelai (Gasteiz, 1993):** Zerbitzu Juridikoak. *Servicios Jurídicos.*
- **Luis Fernández Centeno (Iruña, 1973):** Sindikalizazioa. Militantzia. Ekintza konfederalak. *Sindicalización. Militancia. Actos confederales.*
- **Leire Gallego López de Goikoetxea (Gasteiz, 1989):** Genero berdintasunerako politikak. Ekintza soziala. Migrazio politikak. *Políticas de igualdad de género. Acción social. Políticas migratorias.*
- **Iván Giménez Gil (Iruña, 1976):** Komunikazioa. *Comunicación.*
- **Pello Igeregi Santamaría (Sopela, 1981):** Negoziazio kolektiboa. Lan osasuna. Euskara. *Negociación colectiva. Salud laboral. Euskara.*
- **Alazne Mantxola Mintegi (Legazpi, 1988):** Diruzaintza. *Tesorería.*
- **Aitor Murgia Esteve (Berango, 1988):** Azterketa bulegoa. Politika sozialak. Ingurumena. *Gabite de estudios. Política sociales. Medioambiente.*
- **Unai Oñederra Egaña (Donostia, 1973):** Prestakuntza. Iparraldea. Estrategia suberanista. *Formación. Iparraldea. Estrategia soberanista.*
- **Leire Txakartegi Iramategi (Ondarru, 1973):** Antolakuntza. *Organización.*
- **Ane Miren Zelaia Arieta-Araunabeña (Durango, 1989):** Afiliazioa. Hauteskunde sindikalak. Kudeaketa sistema. Genero Ekitaterako Plana. *Afiliación. Elecciones sindicales. Sistema de gestión. Plan de Equidad de Género.*



Ane Bilbao Alzelai



Luis Fernández Centeno



Unai Oñederra Egaña

- **Unai Oñederra Egaña** (Donostia, 1973). Trabaja desde 2009 en la Fundación Manu Robles-Arangiz, de la cual ha sido director los últimos años.
- **Luis Fernández Centeno** (Iruña, 1973). Afiliado a ELA desde 1995, ha tenido responsabilidades en distintas federaciones y actualmente es responsable de la comarcal de Ezkerraldea-Kadagua. ■



“El Plan de Empleo de Navarra da más poder a las mutuas en las bajas comunes”

Imanol Pascual, coordinador de ELA en Navarra, denuncia que el Plan de Empleo de Navarra 2025-28 es contrario a los intereses de la clase trabajadora

El Gobierno de Navarra, la patronal CEN y los sindicatos UGT y CCOO firmaron el 18 de febrero el Plan de Empleo de Navarra 2025-28. Imanol Pascual considera que la reedición de este Plan de Empleo da continuidad a una serie de políticas contrarias a los intereses de la clase trabajadora.

| Gobierno, patronal y UGT-CCOO han acordado un nuevo Plan de Empleo. En este caso, para el periodo 2025-28. ¿Qué lectura haces del acuerdo?

Antes de comentar los contenidos, creo que conviene destacar que estamos ante un acuerdo antidemocrático, porque la representación sindical que firma el acuerdo no llega al 50%. En concreto, tiene el 48,78%. Esto hace que no solo este acuerdo, sino que el diálogo social también sea cuestionable, porque no representan al 50% de las y los trabajadores navarros. A pesar de todos los obstáculos –financiación pública a UGT y CCOO, una patronal que pide más representación para esos sindicatos, clientelismo en muchas empresas...– ELA lleva muchos años subiendo en representación. En 2011 UGT y CCOO tenían el 54,89% de representación; ahora, el 48,78.

| ¿Qué nos puedes comentar de los contenidos del acuerdo?

Muchas cosas, pero en primer lugar destacaría que el Plan de Empleo da más poder a las mutuas en las bajas comunes. UGT y CCOO ha hecho suyo el discurso de la patronal sobre absentismo. Se han comprometido a reducir las ausencias en el trabajo dando opción a que las mutuas traten bajas que hasta ahora se gestionaban desde lo público.

También creo que es necesario denunciar la actitud del Gobierno de Navarra que, pese a ser el mayor empleador de Navarra, no asume ningún compromiso. El tema de Osasunbidea es un claro ejemplo. La temporalidad en Osasunbidea es del 51,7%, la quieren convertir en entidad pública empresarial y tampoco dicen nada al respecto. Y digo Osasunbidea como podría decir cualquier otro

sector público como, por ejemplo, la educación pública, donde los hay numerosos conflictos laborales abiertos. O, por supuesto, aquellos sectores subcontratados con unas condiciones laborales inaceptables, como el sector de discapacidad o las residencias, sectores que tampoco se citan.

Es imprescindible criticar este Plan de Empleo, pero también creo que hay que ampliar el zoom y poner el foco en el diálogo social, que es el paraguas que sirve para justificar este tipo de acuerdos.

▮ Pongamos pues el foco en el diálogo social. ¿Qué papel juega?

El objetivo del diálogo social es intercambiar financiación pública por desmovilización social. No es casualidad que Navarra sea el sitio de todo el Estado donde más dinero público se destina al diálogo social, y eso se hace porque en Navarra existe un sindicalismo alternativo al de UGT y CCOO. El diálogo social se financia en Navarra con dinero público para frenar a ELA y LAB.

Esto, evidentemente, no es algo nuevo, pasa desde hace décadas, desde los tiempos de Miguel Sanz y Yolanda Barcina. Este Gobierno de Navarra también comparte esta estrategia. Por eso el Gobierno de PSN, Geroa Bai y Contigo-Zurekin ha permitido que UGT, CCOO y CEN se repartan desde 2021 más de 1.200 millones de euros. Y, además, lo hacen eludiendo el control parlamentario. La supervisión y control de lo que se hace con ese dinero no depende de ninguna institución pública, sino que va a depender de los propios firmantes.

▮ ¿Cuál es el objetivo de estos acuerdos que se toman dentro del diálogo social?

El diálogo social consiste en privatizar políticas públicas. Y para ello no dudan en vaciar de contenido otros órganos y supeditarlos a lo que se decida en Consejo de Diálogo Social. Para comprobar esto no hay más que ver lo que ha pasado en el ▶



En 2008 el Gobierno presidido por Miguel Sanz entregó la Medalla de Oro de Navarra –principal condecoración de la Comunidad Foral– a UGT, CCOO y CEN. A comienzos del 2017 *Diario de Noticias* desveló los papeles que demostraban lo que ELA llevaba años denunciando: la financiación irregular y fraudulenta de las estructuras de UGT, CCOO y la CEN por los distintos gobiernos de UPN. ELA exigió la disolución inmediata del Consejo de Diálogo Social y la creación de una comisión de investigación que sirva para depurar responsabilidades políticas por lo sucedido. Han pasado años, décadas, pero el modelo de concertación social navarro sigue funcionando para mayor gloria del Gobierno, la patronal y los sindicatos UGT y CCOO. El reciente acuerdo sobre el Plan de Empleo 2025-28 es el último ejemplo. Por desgracia, parece que no será el último.

Servicio Navarro de Empleo o en el Consejo Navarro de Salud Laboral.

El Gobierno de Uxue Barkos dio la posibilidad a ELA y LAB de entrar en el Servicio Navarro de Empleo. ELA fue el único que rechazó la entrada, porque no se pretendía cambiar el funcionamiento, sino simplemente maquillarlo. De esta manera el Servicio Navarro de Empleo se constituyó con la participación de UGT, CCOO y LAB. Las políticas activas de empleo se acuerdan en el diálogo social, lo que evidencia que se está vaciando de contenido el SNE.

En cuanto al Consejo Navarro de Salud Laboral, en diciembre de 2018 ELA y LAB decidimos abandonar de manera conjunta ese órgano por su ineficacia. Hace unos años, LAB decidió unilateralmente volver a ese órgano, una decisión que ELA no comparte. Es evidente que el Plan de Empleo ha usurpado las competencias del Consejo Navarro de Salud Laboral, apostando además por la figura del Delegado Territorial, y abriendo la puerta a que las mutuas tengan más poder en la gestión de bajas comunes. Esto hace que ELA se reafirme en esa decisión. Aquí hay unos pocos que ganan a costa de que pierdan otros muchos, especialmente la clase trabajadora de Navarra.

Comentas que con el diálogo social pierden las y los trabajadores. ¿Y quién gana?

En este entramado hay tres beneficiados. Primero la patronal, porque recibe dinero público, porque consigue paz social y porque además tiene derecho a veto. Luego, evidentemente, UGT y CCOO, porque reciben financiación pública. El último beneficiado es el Gobierno de Navarra, porque consigue que UGT y CCOO legitimen sus políticas antisociales: negativa a hacer una reforma fiscal, gasto insuficiente en servicios públicos, privatización de los cuidados, el TAV...

Voy a poner un ejemplo que resume muy bien lo que queremos decir. El Plan de Empleo vuelve a recoger



la figura del Delegado Territorial. Para ello destina una partida de 1,6 millones de euros. Esta figura que ya existió en los tiempos de Sanz y Barcina, y se utilizaba para que UGT y CCOO organizaran elecciones sindicales en empresas donde otros sindicatos tenían problemas para acceder.

Has hablado de que unos pocos ganan. También de que otros muchos pierden. ¿Cómo afectan las políticas en torno al diálogo social a la clase trabajadora?

Así es, los intereses de los trabajadores y trabajadoras navarros no se benefician del diálogo social. Lo vemos, por ejemplo, con la siniestralidad laboral. A pesar de todo el dinero público destinado al diálogo social Navarra es la segunda comunidad de todo el Estado con peores datos. Cada quince días fallece en Navarra una persona en su puesto de trabajo.

O, por poner otro ejemplo reciente, podemos ver lo que ha pasado con la propuesta que hemos hecho desde ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE y Etxalde para conseguir que Navarra tenga un Salario Mínimo propio. Lamentablemente UGT, CCOO y CEN se han aliado para echar por tierra esta propuesta, asegurando que es una materia que se está trabajando en el diálogo social. Era de esperar

que la patronal se negase a que se suba el SMI, porque hace negocio a costa de pagar salarios bajos. Pero la negativa de UGT y CCOO es indefendible, y más teniendo en cuenta que esos mismos sindicatos han apoyado esta iniciativa para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

¿Qué puede hacer un sindicato como ELA para revertir esta situación?

Hace poco, el presidente de la patronal navarra decía en el Congreso de UGT que trabajadores y empresarios jugamos en el mismo equipo. En ELA tenemos muy claro que nosotras no jugamos en el mismo equipo que la patronal. Los intereses de la patronal son contrapuestos a los de la clase trabajadora, y por eso ni formamos ni formaremos parte del diálogo social.

En ELA tenemos claro que nuestro camino es otro. Sin confrontación es imposible mejorar las condiciones laborales. Y para ello, para poder confrontar, tenemos que hacer todo lo que está en nuestras manos, para lo que es indispensable la independencia económica, la autonomía política y la caja de resistencia.

Solo con un sindicato fuerte podremos defender nuestros intereses. ■

2025-28 ENPLEGU PLANA. ELA-REN BALORAZIOA

1. Elkarrizketa soziala ez da eraginkorra langileen eta enpleguaren arazoak konpontzeko. Eredu horrek porrot egin du, eta ez du prekaritatea saihestu. Elkarrizketa sozialaren eremuan diseinatutako politikek ez dute balio langileen arazoak konpontzeko: pobrezia areagotzea, prekaritatea, laneko ezbeharrak, desberdintasuna, Administrazioa behin-behinekotasuna, etab. Enpleguaren errealitateak agerian uzten du elkarrizketa sozialaren politiken porrota.

2. Nafarroan, elkarrizketa soziala sare opakua izan da, non finantzaketa publikoa trukatzeko zen bake sozialagatik, eta non gobernuen politikak legitimatzen ziren. Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin) erregimenaren irizpide antidemokratikoak berreskuratzea erabaki du UGT eta CCOO sustatzeko, Sanzen eta Barcinaren enplegu politika okerrenera itzuliz.

3. Elkarrizketa sozialak, patronalari beto eskubidea emateaz gain, ez du zilegitasun demokratikorik, UGT eta CCOO ez baitira Nafarroako ordezkariaren % 50era iristen.

- Beharrezkoa da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua indargabetzea. ELAk uko egin dio kontseilu horretako kide izateko eskubideari, eta desegitearen aldeko apustua egin du, politika publikoak Administrazioak egin ditzan.

4. 2025-2028 Enplegu Planak 552 milioi euroko aurrekontua uzten du CENen, UGTren eta CCOOen eskutan, enpleguaren benetako arazoei heldu gabe. Plan honen lehentasuna CENen interesak betetzea da, "lehiakortasunerako" aurrekontuaren % 50 banatzen baitu, eta horrek enpresei dirulaguntzak eta laguntzak ematea dakar.

5. Siniestraltari aurre egitea ez da lehentasuna. CEN, UGT eta CCOO eraginkorra ez den Prebentzioko Lurralde Ordezkariaren figura kontsolidatzea erabaki dute mutuei baja traumatologikoen tratamendurako bidea irekitzearen eta patronalaren kontrola areagotzearen truke. ELAk Nafarroako Gobernuari ondorengo exijitzen dio:

- Mutuek jatorri traumatologikoko baja komuneko prozesuetan esku hartzeko hitzarmenak sinatzeari uko egitea, Nafarroako Parlamentuaren 2023ko irailaren 28ko Ebazpena betez.
- Zehaztu dezala Osasunbideak lanbide gaixotasunak artatzeko bere gain hartutako gailuak.
- Mutuak osasun eta gizarte babeseko sistema publikoan sar daitezela bultzatzea, Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren azken xedapenetako hiru guturaren arabera.

6. Ez dira jorratzen generoaren arabeko desberdintasunen kausak, eta, beraz, ezinezkoa da horiei aurre egitea, baina beste figura bat sortzen da, berdintasun agentearena, UGT eta CCOO finantzatzen jarraitzeko.

7. Ekologikoki, sozialki eta ekonomikoki hondamendia diren azpiegitura handien alde egiten jarraitzen da, hala nola AHTren alde. Bien bitartean, Planean "greenwashing" egiten da larrialdi klimatikoaz eta trantsizio ekologikoaz hitz eginez.

Resistir es vencer

ELA ha vuelto a lograr una importante victoria en Vulcanizados Zuloaga, empresa dedicada al sector de la automoción ubicada en Zaratamo. La empresa ha aceptado retirar el ERE y la garantía de empleo para la plantilla hasta febrero de 2026

> Gorka Quevedo

En marzo del 2023, tras una huelga que duró casi dos años, la plantilla de Vulcanizados Zuloaga logró el primer convenio de empresa, dejando atrás el precario convenio estatal de químicas que se les aplicaba. En el proceso ELA ganó varios juicios por vulneración del derecho de huelga o sustitución ilegal de trabajadores.

En abril de 2023, apenas un mes después del acuerdo de fin de huelga, la empresa presentó un ERTE. Una vez más, la alegría duró poco en casa de los Zuloaga. En septiembre de ese mismo año el Juzgado de lo Social número 5 de Bilbao declaró nulo el ERTE, al declarar que Vulcanizados Zuloaga había vulnerado tres derechos: libertad sindical, huelga y negociación colectiva. La sentencia fue demoledora: la jueza relacionó la decisión de Zuloaga con la huelga para lograr el convenio de empresa y descartó que se hubieran acreditado las causas para el ERTE. La jueza sentenció que la empresa debía reanudar de manera inmediata todos los contratos de trabajo suspendidos y condenó al pago de los salarios dejados de percibir por los trabajadores afectados. Por último, la sentencia condenó a la empresa a abonar a ELA 25.000 euros en concepto de indemnización por daño moral.

Pese a su nueva derrota, la dirección de Vulcanizados Zuloaga demostró tener más moral que los jugadores del Alcoyano, que en 1948 se enfadaron con el árbitro porque pitó el final un minuto antes en un partido que iban perdiendo por goleada.



En la imagen las y los trabajadores de Vulcanizados Zuloaga con el acuerdo para que la dirección retirara el ERE.

Pensando, se supone, que pese a la goleada que estaban sufriendo podían remontar y ganar el partido, horas después de la sentencia del Juzgado de lo Social enviaron ocho cartas de despido, aparentemente alegando causas 'objetivas'. Los ocho despedidos eran afiliados de ELA que secundaron la huelga que finalizó en marzo del 2023. Ningún trabajador que no secundó la huelga fue despedido.

Sin embargo, su gozo en un pozo. No solo no remontaron el partido, sino que la derrota final ha sido más abultada todavía. En septiembre del 2024, tras varias sentencias en favor de las personas despedidas, la empresa amenazó con llevar a cabo un ERE para la totalidad de la plantilla (35 personas), en caso

de que seis de los despedidos en 2023 (dos anteriormente ya habían conciliado su salida) no aceptasen un acuerdo de salida. ELA, por supuesto, no aceptó el chantaje, y la empresa jugó su última carta. De perdidos, al río: presentó un ERE para cerrar la empresa. Finalmente, el 6 de febrero se cerró en PRECO un acuerdo por el que ELA consiguió que se retirase el ERE pocos días antes del juicio, logrando la enésima victoria sindical.

Tres claves para la(s) victoria(s)

Mikel Etxebarria, miembro del equipo de Concursos y EREs, ha sido una de las personas encargadas de gestionar estos años los diferentes conflictos laborales en Vulcanizados Zuloaga. En su opinión, son tres las



claves de las continuas victorias sindicales logradas por ELA. “En primer lugar, destacaría la gran labor de los tres delegados, los tres de ELA. Ha sido clave el gran nivel que han mostrado durante todo el proceso. Cuando ELA proponía una línea de trabajo siempre la hablábamos y trabajábamos en equipo. Esto ha permitido que incluso en los momentos más difíciles la afiliación confiara en ellos, les creyeran y

fueran todos a una. En segundo lugar, tener una plantilla con una gran tasa de afiliación. Por último, no me quiero olvidar de quienes trabajan en el equipo de Concursos y EREs. Han hecho un trabajo brutal”.

Etxebarria está muy satisfecho con el trabajo realizado por ELA en Vulcanizados Zuloaga. Sin embargo, denuncia la actitud que ha tenido Inspección de Trabajo. “Unas

semanas antes del juicio nos llamó el asesor de la empresa. Dijo que quería reunirse con ELA, pero que antes debíamos saber que el informe de la Inspección de Trabajo era favorable a ellos. El informe compraba todos los argumentos de la empresa y no recogía ninguno de los nuestros. Es decir, la inspección avalaba un ERE que para ELA era claramente fraudulento. Sin embargo, teníamos el juicio muy bien preparado y ▶

decidimos seguir adelante, porque estábamos convencidos que habíamos hecho muy buen trabajo. Si fuera un partido, tengo claro que en el juicio éramos favoritos para ganar. Y no lo digo por decir. Estos años hemos tenido 10 procesos judiciales en Vulcanizados Zuloaga, y hemos ganado los 10. Seis días antes del juicio nos volvieron a llamar para decir que aceptaban en su integridad nuestra última propuesta, que era de diciembre de 2024. En resumen, aceptaban retirar el ERE, que solo salgan de la empresa aquellas personas que lo quieran hacer voluntariamente y garantías de empleo”.

Triunfo colectivo

¿Cómo pudo avalar Inspección de Trabajo un ERE que en opinión de ELA era manifiestamente fraudulento? Etxebarria intenta responder a esta pregunta. “Tengo la impresión que tanto la inspección como la Autoridad Laboral de Bizkaia se pusieron de parte de la empresa para forzarnos a negociar. Y, también, porque siempre actúan en favor de la empresa en los casos de ERE. Nos querían forzar a negociar en los parámetros de la empresa. Sin embargo, aguantamos. Nos querían poner en el precipicio, que nos entrara la duda. ¿Y si perdemos el juicio, cierra la empresa y la gente se va a la calle con una indemnización de 20 días por año trabajado? Por ello digo que es un triunfo colectivo, de unos delegados que han hecho un trabajo espectacular, de una afiliación que ha creído en ellos y de un sindicato que lo ha dado todo”.

Mikel Etxebarria destaca que estamos ante un acuerdo muy potente. “Tenemos que tener en cuenta que trabajadores que fueron despedidos hace año y medio hoy están trabajando en sus puestos de trabajo. Estamos contentos, y espero que durante un largo tiempo no volvamos a tener problemas en esta empresa”. De esta manera, Etxebarria espera que se ponga fin, al menos durante un largo tiempo, a la conflictividad laboral en Vulcanizados Zuloaga”. ■

SATISFACCIÓN POR EL TRABAJO REALIZADO

Edu Jiménez, delegado de ELA en Vulcanizados Zuloaga, ha vivido en primera persona estos cuatro años de lucha. Cuatro años en los que reconoce haber vivido una montaña rusa de sensaciones y estados de ánimo. “En este tipo de procesos hay tiempo para todo: para días buenos, para días regulares y también para días malos”. Sin embargo, preguntado por el sentimiento que tiene tras estos años de lucha, no duda: “satisfacción”. “En Vulcanizados Zuloaga nunca se había hecho nada para intentar mejorar las condiciones laborales. Este camino ha sido un reto donde hemos ido aprendiendo según sucedían las cosas. La huelga para lograr un convenio propio fue muy dura, la empresa no asimiló lo que conseguimos. Por ello luego vino el ERE y todo lo demás”.

Sin embargo, la plantilla se ha mantenido firme y ha logrado vencer todas las batallas. “Nos han presionado muchísimo. Pero lo más importante es que tenemos claro que no vamos a tolerar que nos pisen. Hemos aprendido que si luchas se pueden hacer cosas, nos hemos empoderado. Muchas veces hablas con gente del sector y te comentan que si aquí hay algún despido, allí un ERE... Y parece que no se puede hacer nada. Pues no. Hemos aprendido que en casos como el nuestro, una empresa con beneficios y carga de trabajo, por mucho que intenten convencerte de lo contrario, si te organizas y luchas se pueden hacer muchas cosas”.

Edu no se olvida de **Cristóbal Jiménez** y de **Marian Otero**, los otros delegados y delegadas de ELA. “Cristóbal fue el primer delegado, con él empezó un poco todo esto. Y Marian ha hecho una labor increíble. El nuestro es un sector muy masculinizado, donde las mujeres están muy machacadas. Si los hombres que trabajan en este sector están machacados, las mujeres están el doble. Entre los tres hemos intentando hacerlo lo mejor posible. Aunque estés jodido tienes que tirar de la gente, porque si estás desanimado o los compañeros te ven mal, es normal que ellos también estén mal”.

De cara al futuro Edu dice que seguirán luchando. “Lo más difícil era meter la negociación colectiva en la empresa, algo que ya hemos hecho. A partir de ahí lo que tenemos que hacer es seguir mejorando nuestras condiciones laborales, porque, en temas como salarios tenemos todavía margen de mejora”.

Por último, los delegados y delegadas de ELA quieren agradecer el trabajo del sindicato. “ELA ha sido el único sindicato que ha creído en nosotros. Cuando fuimos a contar nuestra situación nos apoyaron desde el primer momento, poniendo toda la estructura a nuestro servicio. Hay un montón de gente, desde servicios jurídicos a responsables sindicales que han hecho un trabajo enorme”.



SOLDATA PENTSIO DUINAK

HEMEN ETA DENONTZAT

POR UNAS **PENSIONES**
Y UN **SALARIO MÍNIMO**
JUSTO Y SUFICIENTE



MOBILIZAZIO SINDIKALAK

APIRILAK 3, BILBO
APIRILAK 14, IRUÑEA

MOBILIZAZIOAK

APIRILAK 5, LARUNBATA

BILBO: JESUSEN BIHOTZA, 17:30etan

DONOSTIA: BOULEVARD, 17:30etan

GASTEIZ: ARTIUM, 12:00etan

IRUÑEA: BALUARTE, 18:00etan

“Egungo polizia ereduak porrot egin du”

> Gorka Quevedo

Duela hamarkada bat Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek Udaltzaingoa Arkautik kudeatutako hautaketa eredu bateratu baten alde egin zuten. Azken urteotan, beraz, EAEko udaltzaingoko Enplegu Publikoko Eskaintzak (EPE) eta lan-poltsak Arkautin erabaki dira. Hamar urteren ostean argi geratu da egungo ereduak ez duela funtzionatzen eta kaltea dakarkiela bai udaltzaingoei eta baita herritarrei ere. ▶

Aitor Asla Uri, Iratxe Sotres Zenarruzabeitia, David Kote Martínez de Lahidalga, Irune Arrieta Azpitarte, Iñaki Navarro Seta, Mikel Alaña Markuleta, Roberto Silva González eta Samir Alloulin Franciscok ondo baino hobeto ezagutzen dute egoera hau. Lagun hauek udaltzainak dira, eta eguneroko jardunean sufritzen dituzte porrot egin duen kudeaketa eredu honen ondorioak. Udaltzaingoa inguruan hausnartzeko bildu dira. Izan ere, azken hamarkadan euren egoerak okerrera egin du.

Berriki alde batetik Azpeitia, Zumaia eta Getariako udalek eta bestetik Oñatiko udalak Udaltzaingorako EPE propioen apustua egin dute. Aurretik Ondarroak, Lekeitiok edo Markinak erabaki bera hartu zuten. Norabide onetik doan proposamena dela uste dute. Izan ere, duela hamar urte Enplegu Publikoko Eskaintza bateratuak martxan jarri zirenetik udalek autonomia osoa galdu dutela salatzen dute.

